

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak Nafarroako Unibertsitateko langileen eta bertako onuradunen osasun-arreta bere gain hartuko du maiatzaren 1etik aurrera

*Data horretan diagnostiko-prozesuan dauden edo prozesu akutu edo azpiakutuen ondoriozko tratamenduak jasotzen ari diren pazienteek eta patologia larriengatik hala direnek, arreta Nafarroako Unibertsitate Klinikoaan jasotzen jarraituko ahalko dute*

Martes, 22 de marzo de 2016

Maiatzaren 1ean Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak Nafarroako Unibertsitateko langileen eta bertako onuradunen osasun-arreta bere gain hartuko du, oro har. Pazienteak diren pertsonak osasun publikoaren arlora behar bezala igarotzea lortzeko asmoz, lantalde bat eratu zen duela aste batzuk Nafarroako Unibertsitate Klinikoa nahiz Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideko ordezkariekin.

Adierazitako datatik aurrera, pazienteek osasun-arreta behar dutenean, laster esleituko zaien osasun-zentroko lehen mailako arretako profesionalengana jo beharko dute, edo bestela, larrialdi-zerbitzuetara, beharrezkoa balitz.

Nafarroako Unibertsitate Klinikoko espezialistek etengabeko jarraipena ematen dieten pertsonen kasuan, atxikita geratzen diren NOZ-Oko familiako medikuak edo pediatriak egingo du balorazioa, eta hark erabakiko du arreta ahalik eta era egokienean nola eman.

Jakina, prozesu akutu batengatik Nafarroako Unibertsitate Klinikoaan 2016ko maiatzaren 1a baino lehen ospitaleratutako paziente guztiak, egun horretan ospitaleratuta daudenak, ospitale horretan bertan artatuko dituzte, harik eta medikuaren alta jasotzen duten arte.

### Aparteko salbuespenak

Salbuespen modura, Nafarroako Unibertsitate Klinikok honako kasu hauetan aldi baterako arreta ematen jarraituko du:

- Maiatzaren 1ean prozesu onkologiko bat jasateagatik artatzen ari diren pertsona guztiak arreta Nafarroako Unibertsitate Klinikoaan jasotzen jarraitu ahalko dute, xede horretarako ezarritako irizpide klinikoen arabera eta, nolana ere, tratamenduaren amaiera bermatuz.
- Prozesu kirurgikoei dagokienez, ebakuntza bat baimendu ahalko da, denboran ez dela atzeratu behar irizten bada, baldin eta agindu hori maiatzaren 1a baino lehen eman bada. Maiatzaren 3a baino lehen egin beharko da.

- Maiatzaren 1a baino lehen haurdun daudela esan zaien emakumeen kasuan, arreta Nafarroako Unibertsitate Klinikokoan jasotzen jarraituko dute erditzen duten arte.
- Maiatzaren 1a baino lehen kontsultan artatutako pazienteei eta emaitza, sail arteko edo aurrez aipatutako kontsulten berrikuspenen zain daudenei, kontsulta berri bat egitea baimenduko zaie, maiatzaren 31 baino lehen egin beharko dena.
- Ospitale-erabilerako medikazioa behar duten pertsonen Nafarroako Unibertsitate Klinikokoan jarraituko dute Nafarroako Ospitalegunean artatzen dituzten bitartean. Farmaziako zerbitzuen arteko koordinazio egokia egingo da.
- 2016ko maiatzaren 1a baino lehen ebakuntza jasaten duten pertsonen errehabilitazioko tratamendua egin ahalko dute, gehienez ere, ebakuntza egin eta hurrengo hogeita hamar egunetan.

Mugarik gabe, transplanteak izandako pazienteak eta hemodialisira joaten direnak Nafarroako Unibertsitate Klinikokoan artatuko dituzte.

Aurrez aipatutako kasu guztiak NOZ-Oren Prestazio eta Kontzertuen Kudeaketa Zerbitzuak baloratuko ditu, eta hark dagokion baimena emango du irizpide horiek betetzen direnean eta eskatutako arreta justifikatuzat jotzen denean.

Haur-adinean dauden adingabeei dagokienez, oro har finkatutako irizpideak beteko dira.

NOZ-Ok honako hau bermatuko du: Nafarroako Unibertsitateko langileei eta haien senideei laguntza emateko prozesua ahalik eta errespetu handienarekin emango dela, kolektibo horri nahiz une horretan laguntza ematen dien profesionali.